

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2026ko martxoaren 31n arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2026-02-24KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2026-02-24ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Excavaciones y Construcciones Bartolo SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 1ean, 11/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: NA-1300 karreteran drenaje sarea hobetzeko obra kontratua Excavaciones y Construcciones Bartolo SLri esleitzea.

2.- Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 4an, 12/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2026ko otsailaren 24an

egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta batzar horretan onartutako akordioetatik eratorritako betebeharrak ekonomikoak ordaintzeko agindua ematea.

3. Erroldan ofiziozko baja

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 5ean, 13/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: José Eldelberto Gallego Santa jaunari udalerrri honetako biztanleen udal erroldan baja ematea.

4. Erroldan ofiziozko baja

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 10ean, 14/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Yassine Jidane, Mohammed Chafra eta Mohamed El Hamse Ait Ibourk jaunei udalerrri honetako biztanleen udal-erroldan ofizioz baja ematea.

5. Jose Ignacio Yeregui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 20an, 15/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Jose Ignacio Yeregui Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursaila eta 237. Lursaila elkartzeko baimena ematea.

6. Xabier Sotil

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko martxoaren 24an, 16/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 57. Lursailan dagoen eraikineko hirugarren solairuko etxebizitzako leihoak aldatzeko baimena ematea.

4.- 1/2026 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 1/2026 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua 1 2391 22602 "Berdintasun kanpaina". 1.700,00 euro

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.589,23 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 110,77 euro

2. Ezohiko kreditua 1 4590 62200 "Eguzki plaken instalakuntza". 53.500 euro

"Partaidetzako tokiko garapen estrategikoei dirulaguntza" 1 7508005 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 37.615,37 euro

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 15.884,63 euro

3. Ezohiko kreditua 1 1601 62200 "Drenajeko lanak". 19.000 euro

"Uholde arriskutik babesteko laguntzak" 1 7508006 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 15.650,00 euro

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 3.350,00 euro

4. Ezohiko kreditua 1 3120 2279901 "Zahar egoitzaren kudeaketa aldaketa". 100.000 euro

"Zahar egoitza zuzeneko dirulaguntza" 1 45060 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 100.000 euro

"Libre determinazioa" 1 7508003 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 10.200,88 euro

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 15.438,76 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2025eko aurrekontauren exekuzio oinarrien 9. oinarriaren arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

4. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO SOLUZIOAK ELKARRI EMATEKO HITZARMENARI ATXIKITZEA

2025eko azaroaren 20an, Administrazio Digitalaren Estatu Agentziak, Eraldaketa Digitalaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioak (Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritza) eta Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmena sinatu zuten administrazio digitaleko oinarrizko konponbideak elkarri emateko.

Hau ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Hitzarmen horri atxikitzeko borondatea adieraztea, eta baldintzarik gabe onartzea bere klausula guztiak, aplikagarriak zaizkion heinean.

Bigarrena: Nafarroako Foru Komunitatearen esku uztea hitzarmenaren zortzigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordean parte hartzea, eta batzorde horretan hartutako erabakiak onartzen dituela, aipatutako klausulan adierazitakoari kalterik egin gabe.

Hirugarrena: Beteluko Udaleko alkateari akordio honetatik eratortzen diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Ibedrola	F. argiztapen publikoa	496,83 €
Codisna	F. 26.041	199,65 €
Hortalizas Etxeberria	F. abonoa	24,50 €
Comercial Fervis	F. 574	89,98 €
Venus Campos Walsh	F. 53	2.833,41 €
Rekalde Zurgindegia	F. 775-26	996,69 €
Angelines Carrillo	F. A4/2026	90 €
Wikai	F. 1/3041	112,10 €
IDM medical	F. 362	133,95 €
Diegaby	F. 71	45 €
Araizko Udala	F. idazkariaren gastuak 2025 urta-uztai	17.559,21 €
Araizko Udala	F. idazkariaren gastuak 2025 abuz-aben	12.976,38 €
Iberdrola	F. Otsaila Udaleko pisua	9,90 €
Iberdrola	F. Otsaileko urberoa	7,37 €
Ayuntamiento de Leitza	F. Red Nels 2025	72,15 €
Ascensores Arga	F. 2026-01-R-41676	67,76 €
Goiener	F. Eskola otsaila	113,97 €
Goiener	F. udaletxea otsaila	1.297,48 €
Vodafone	F. otsaila	209,90 €
Mª Tere Muguerza	F. seiluak	38,40 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa otsaila	437,49 €
Gassó	F. 26F02869	306,26 €
Ducha ya	F. 20.262.426	3.056 €
Miguel Ramon Olano	F. 7/2026	4.391,70 €
F.E.M.P	f. RAM/26/0007	400 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	278,15 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. urtarrileko mugikortasuna	171,10 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. otsaileko mugikortasuna	162,60 €
Miel Ramon Olano Zabaleta	F. 8/2026	569,91 €
Miel Ramon Olano Zabaleta	F. 9/2026	220,22 €

Miel Ramon Olano Zabaleta	F. 10/2026	125,84 €
Suministros Moncayo	F. E26/926	690,69 €
Ofico	F. 261222	140,19 €
Correos	F. gutun zertifikatuak	7,18 €
Alkubo ingeniería	F.C49	514,25 €
Alkubo ingeniería	F. C5	2.722,50 €
Alkubo ingeniería	F. C89	46.736,25 €
Raul Gonzalez Maldonadonado	F. TB2025-F7	7.574,60 €
Kirol Mankomunitatea	2026 kuota	5.998,40 €
Iruña mantenimientos	F. 26.6001	1.493,91 €
SGAE	F. 1260171468	783,32 €
Codisna	F. 26.089	159,72 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide	F. otsaileko Aholkularitza	214,17 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. urtarrileko janaria	42,62 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. urtarrileko garbiketa produktuak	16,40 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. otsaileko janaria	47,06 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. otsaileko garbiketa produktuak	25,10 €
Maite Garcia Satrustegi	F. otsaila Sorgintxo bazkariak	988 €
Seikide	F. 495 martxoa	214,17 €
	DENETARA:	115.862,43 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.